

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aintzane Ezenarro Egurbide Aralar legebiltzar-taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA** egiten du “pentsioak erreformatzeko proposamenari buruz”, osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin.

ZIOA

Joan zen urtarrilaren 29an pentsioen erreformarako proposamenaren berri izan genuen. Espainiar gobernu kontseiluak hartu zuen horretarako erabakia, beste inorekin ezer adostu gabe. Kontuan izanik inorekin adostu gabe hartu duela horretarako erabakia, bereziki sindikatuekin, Aralarrek hurrengo legez besteko proposamena aurkezten du:

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

- 1- Eusko Legebiltzarrak espainiar gobernuari eskatzen dio bertan behera utz dezala Gobernu kontseiluan urtarrilaren 29an onartu zuen Pentsioen erreformarako proposamena .
- 2- Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketaren negoziazioari ekin diezaiola, Gernikako estatutuak bere 18. artikuluan jasotzen dena betetzeko, hots, gizarte segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketa euskal herritarron esku izateko.

Gasteizen, 2010eko otsailaren 1ean

Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar legebiltzar taldeko bozeramailea